



1020/2022 EBAZPENA, ABENDUAREN 1EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ AZAROAREN 11KO 961/2022 EBAZPENAREN HUTSAK ZUZENTZEN DIREN (961/2022 EBAZPENA, AZAROAREN 11KOA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DEN BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN BIDEZ / ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN BIDEZ / ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ ADMINISTRARI-LAGUNTZAILE LANPOSTU BAT BETETZEKO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO AHOIKULARITZA JURIDIKOKO ZUZENDARIORDETZAN).

961/2022 Ebazpena, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten den administrari-laguntzaile lanpostu bat behin betiko barne-mugikortasunaren / aldi baterako barne-sustapenaren / zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzan. Deialdian akatsak antzeman direnez, deialdia aldatu egin da, honako atal hauek sartuz eta/edo aldatuz:

Bi akats antzeman dira:

- 1) DESTINOAn, zuzenketa hau egiten da:

Honakoa esaten den lekuan:

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia. Zuzendaritza Nagusia, Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetza. Lanaldi zatitua (Vitoria-Gasteiz)

Honakoa esan behar du:

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia. Zuzendaritza Nagusia, Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetza. Lanaldi zatitua (Bizkaia).

- 2) MEREZIMENDUEN BAREMOAN behin betiko barne-mugikortasuneko eskatzaileen baremoak gehitu dira.

Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:

- Lan-esperientzia, kategoriaren azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 47,5 puntu)
- Euskaraz:
 2. HE: 4,7500
 1. HE: 2,3750

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan



Era berean, eskabideak aurkezteko 20 egun balioduneko epea irekiko da berrito, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 1a.

 **Osakidetza**

Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

Luisa Larrauri Ereñozaga